

Izerdia

Joxean Agirre

Lehen damuak garbitzen zituen bekatuak. Orain izerdiak. Lanean ahalegin fisikoa gutxitzen joan ahala hasi ginen aisialdian izerdia ateratzen. Kirol amateurrean txirrindularitzak izan duen gorakada, gimnasioek izan zuten moda eta orain crossfitak hartu duen izena, lasterkarien edo *runner*-en munduan bertikaltasunak lortu duen prestigioa ez dira horren adierazpen baizik; izan ere, ez da Zegama-Aizkorri bakarrik, ia-ia herri bakoitzak antolatzen baitu lasterketa bertikalen bat.

Gure mugetatik kanpo ere badira ikusgarriak. Uztaileko beroaldiak oporretan harrapatu gintuen eta mendi aldera, Vielhara, jo genuen, altuerak freskotasuna ekarriko zigulakoan, eta horrela izan genuen Trail Vielha Molieres 3010 mendi lasterketa jarraitzeko

aukera. 43 kilometroko ibilbidea du eta 2.000 metrotik gorako bost gailur, horien artean Molieres, 3.010 metrokoa. «Trail», «*extreme*» edo «bertikal» hitza erantsirik badarama, lasterketa gogorren seinale eta gehiago 37 graduko be-roarekin.

Goizeko sei eta erdietan atera eta onenak hiru ordu eta erdiren bueltan itzuli ziren. Horiekin sartu zen Larraitz Antxia, emakumezkoen artean denborarik onena eginda, eta bere bi umeak gainera zituela igo zen sariak jasotzera, kirol hauetako saria oroigarri bat izaten bada ere. Plazako pantaila erraldoian aurreko edizioako irudiak ikusiz, are ederragoa eta gogorragoa zirudien ibilbideak. Gaueko bederatziak jotzeko zirela iritsi zen azkena. Hari itxaroten eman genituen ordu batzuk, Becketten antzezlanean Godoti itxaroten bezala. Bidenabar,

gogora dezagun idazleari galdetu ziotela behin Godoten izenaz eta frantziar txirrindulari bat zela erantzun zuen, beti azkena iristen zena eta jendea itxaroten edukitzen zuena.

Balentria horiekin animatuta, etxera itzuli eta Donejakue bideari ekitea erabaki genuen edo eginda genituen zatiei jarraipena ematea, eta zin egiten dut lasterkariak Molieres igotzen baino izerdi gehiagoa atera dugula. Gure helmuga, dena den, ez da Santiago, Bilbo baizik. Hilean etapa bat eginez jarraitzea erabaki dugu eta seguru gaude aurki iritsiko garela Begoñako basilika edo San Mameseko katedrala ukitzera eta horrenbestez barkatuko zaizkigula gure bekatuak. «Zer bekatu?», galdetuko du norbaitek. Dietaren kontrakoak, noski. Gaur ez dago bestelako bekatu-rik. •

Komunikatzaileak

Asier Aiestaran

Gregorio Larrañaga *Mañukorta* bertsolari handia joan den uztailaren 25ean hil zen, eta oroitzapen batzuk freskatu nahian orain urte batzuk Xabier Amurizak idatzi zion biografia irakurri dut egunotan. “Bertsonajea” izenburua ipini zion eta atal desberdinen artean, amaieran badago bat bereziki interesgarria egin zaidana. Egileak Mañukortaren ekarpena eta izaera aztertzeko bi lagun talde biltzen ditu: batetik, haurtzaroan eta gaztetan gertutik ezagutu zuten bere inguruko pertsonak; bestetik, bertso-tan maiz aritu zen Algortako (eremu urbano bateko) bertsozale kuadrilla.

Bi mahai-inguruetan, batez ere bigarren horretan, airean dabilen galdera honakoa da: nolatan lortu zuen txapelketetan beste munduko emaitzarik lortu ez zuen bertsolari batek urtero eta horrenbeste urtetan plaza gehien egiten zuen bertsolarietako bat izatea? Eta Algortara aplikatuta: zergatik zen horren estimatua, horren jatorri desberdinetik etorri arren?

Erantzuna, noski, ez da bat eta bakarra, eta mahaiaren inguruan hainbat kontzeptu aipatzen dira: naturaltasuna, tokian tokiko entzuleriara egokitzeko jakitea, “pertsonaiaren” berezitasunak, gertutasuna... Hala ere, ez dut

alferrik ipini naturaltasuna zerrendaren hasieran, eta nago hor egon daitekeela gakoetako bat, baina Amurizaren liburua irakurrita argi geratzen da, bere itxurak pentsarazi lezakeenaren kontra, Mañukortak oso gutxi inprobisatzen zuela bere bizitzan.

Ez da adibide bakarra. Azken egunotan, Jose Luis Kortaren bisita izan dugu erredakzioan, eta telebistan aspaldiko partez Karlos Argiñano ikustea tokatu zait. Non dago muga pertsona eta pertsonaiaren artean? Eta horrek zer eragin du komunikatzeko gaitasunean? Komunikatzaile bezala interesgarriak iruditzen zaizkidan galderak. •